

INDIANA JONES-EN AZKEN ABENTURA

Maialen Akizu Bidegain, 12 urte

Urretxu

Harreman ezkutua azken boladan denen ahotan zebilen. Chat-a gora, eta chat-a behera. Ordenagailuaren aurrean jarri eta teklak zapalduz, sarearen beste alderaino helduz. Baina inoiz ez zenekien ziur non zegoen beste aldea.

Niri ere mundu hori gustatzen hasi zitzaidan. Mutil artean ez bainuen arrakasta handirik izan. Ez naiz izan-eta oso ederra, chat-ak aukera hori ematen zuen, fisikoari begiratzeari utzi eta psikologikoarekin maitemintzen ginen. Etxera heldu bezain laster, ikasketak alde batera utziz sakatzen nuen ordenagailuko botoia, eta goizeko ordu txikiak arte ez nuen itzaltzen. Harreman asko izan ditut. Harremanak beti ere parentesi artean.

Izan dudan erlazio luzeenetako bat Zuhaitz izeneko batekin izan nuen. Gogoratzen naiz nola ostegun euritsu batean ezagutu genuen elkar. Euria ari zuen barra-barra, ez nuen arratsaldean ezer egiteko (ia arratsaldero bezala), eta kalera ateratzeko gogorik ez nuenez, chat-aren mundura egin nuen bueltatxo bat. Berrehun bat lagun zeu-

den konektatuta, hauek ere ez zuten beste zereginik izango arratsaldean eta berrehun horietako bat hizketan hasi zitzaidan:

–Apa. Zer moduz?

–Kaixo. Ondo esan beharko, eguraldi txarra, baina gustura. Eta zu? Zu ere ondo?

–Bai. Hor ere euria ari du, jo hemen ez du atertu arratsalde osoan.

–Ya. Neguan sartu garela nabari da.

–Berria zara chat-ean? Ez zaitut inoiz ikusi konektaturik.

–Bai, bueno orain dela gutxi hasi naiz. Eta erabat biziatuta nago, jiji.

–Normala. Nik urtebete daramat mundu hone-tan eta oraindik ez naiz aspertu.

–Ta nun bizi zera?

–Beasainen. Ta zu?

–Urretxun.

–A laster festak dituzue, ez?

–Bai. Bueno afaltzea jun behar det. Eongo gea! Mxx

–Aio.

Horrela hasi zen gure harremana. Chat-ean, era laburtuan idatziz, harreman luze baten esperantzaz.

Gero Urretxuko festetara etorri zen, eta han gehiago ezagutu ginen. Mutil jatorra zen, betaurrekoduna, betiko ikasle txintxo horietako bat, baina betaurreko eta ile gominadun horren atzean, mutil ireki eta parrandero bat zegoen, eta hori gustuko nuen. Horregatik gure kableen arteko harremana, bihotzen artekoa bihurtu zen.

Baina urtebete pasa zen eta bereizten joan ginen. Berak Bilbon ikasten zuen eta nik, berriz, Donostian. Kilometroak gainditzeko adinakoa ez zen izan gure maitasunaren indarra, eta horrela utzi genuen. Baina, chat-eko mundura, egiten nituen hala ere bueltatxo batzuk. Zuhaitzekin harreman polita ezagutu nuen (nahiz eta oso ondo ez bukatu), eta beste norbait ezagutzeko itxaropenarekin sartzen nintzen.

Bazen chat-ean Indiana Jones izeneko bat. Beti gustatu izan zaizkit India Jones-en pelikulak, eta nire gustu antzekoak izango zituelakoan berarekin hasi nintzen hizketan. *Kaixo!* xume batekin hasi ginen eta pixkanaka gure arteko harremana berotzen joan zen. Esan zidanez, Donostiakoa zen. Surfean aritzea gustatzen omen zitzaion. Mendi aldean, txalet batean bizi omen zen. Gauetan ateratzen zitzaidan printze urdina bezalakoa zen. Argazkiren bat edo beste ere pasa zidan. Ile horia, begi urdinak, muskuluak... txoratuta nengoen. Niri ere esaten zidan argazkiak bidaltzeko, baina nire irudia gustatuko ez zitzaiola eta, ez nekiela argazkiak nola bidaltzen ziren esaten nion beti.

Gaur elkartzekotan geratu gara. Bera Indiana Jones-en azken DVD-a eramatekotan gelditu da. Ni, berriz, Arkaitz Canoren “Neguko zirkua”. Bostetan gelditu gara Zelai Aristiko parkean, berak esan baitzidan ez zitzaiola axola honaino etortzea. Ordubete bat pasa dut apaintzen; dutxatu, makilatu, ilea plantxatu... itxura ederra izan nahi nuen. Igogailuari deitu eta parez-pare ireki da. Lau-

garren pisuko Iker bizilagun petrala zegoen barruan, Indiana Jones-en azken pelikula besapean zuela. Harkaitz Canoren liburua, atzealdean gorde dut. Kasualitate bat zela pentsatu dut, inola ere ez baitu nire printzearen antzik! Igogailutik jaitsi eta Zelai Aristira joateko bide luzeena hartu dut. Iritsi eta non ikusi dudan Iker, aulkian eserita norbaiten zain balego bezala, ordulariari begira. Ezin nuen sinetsi. Bera da! Ez da posible! Ni bai tuntuna!

Orain badakit aitzak behin baino gehiagotan esan zidan *gezurraren gainean egia eraiki nahia* atsotitzaren esanahia.

Horrelaxe amaitu da Indiana Jones-ek nirekin izan duen azken pelikula. Etxera jaon naiz berriro. Haserre, chat-a borratzeko asmoarekin. Ordenagailuaren aurrera heldu naiz eta *–Kaixo, zer izen duzu?* Irakurri dut.

Ezin izan diot tentazioari eutsi. Izan ere, penaren gozokia da esperantza.

–Angeline Jolie... eta zuk?